

**MUSIKENE 20. URTE
20 ANIVERSARIO DE MUSIKENE**

2022-05-13 Donostia-San Sebastián 13-05-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Hezkuntza Sailaren Sailburua zaren Jokin, sailburuordea Adolfo, zuzendaria Miren, eta Musikene-ko zuzendari Miren eta baita ere Juan Mari “Zeler” eta baita Musikene-ren kide guztiok, arduradun eta ordezkariok, irakasle eta ikasleok, jaun andreok, egun on guztiok!

Lehenik eta behin, zorionak Musikene eta eskerrik asko zuen gonbidapenagatik.

Musikak elkartzen gaitu eta musikaren bidez ari zarete urteurren hau ospatzen.

Eskerrik asko:

- Perico Sambeat eta Big Band-ari;
- Carlos Mena eta bere ikasleei;
- Erik Nielsen eta Bilbao Orkestra Sinfonikoari; eta
- “Musikene familia” osatzen duzuen profesional eta musikazale guztioi.

Plazer bat izan da orain arte entzundakoa eta ikusitakoa, plazer bat da musika lagun, gaur hemen zuekin hogeigarren urteurrena ospatzea.

“Un Pueblo que canta y baila a ambos lados del Pirineo”. Horrela adierazi zuen Voltaire-k eta horrela da. Musika gure herriaren bidelagun izan da beti. Horregatik, duela hogeit hamar urte Musikene sortu zenean, aintzinako ibilbide bati jarraipena eman zitzaion.

Urte hauetan lan asko egin duzue, ilusio handia jarri duzue eta gaur erakunde honen “etengabeko bilakaera eta hobekuntza” bultzatu duzuen guztioi gure aitortza eta esker ona!

Euskadin Goi Mailako musika zentro bat izatea behar bat da eta, horrekin batera, zentro honek harrotasunez betetzen gaitu. Azken finean musika gure hezkuntzaren, kulturaren eta historiaren bizkar hezurrean baitago. Horrela sentitzen dugu, eta horregatik babestu eta indartzen dugu proiektu hau.

Musikene Goi Mailako zentroa da, kalitatezko formazioa eskaintzen duena. Hemen interpretazioari, konposizioari, zuzendaritzari eta pedagogiari lotutako arloetan kalitatezko irakaskuntza eskaintzen duzue. Horrekin batera, euskal hizkuntza eta kulturaren arloan egiten duzuen ikerketa-lana ere azpimarratzekoa da; “musika kultura” hedatzeko egiten duzuen ahaleginarekin batera.

Azken urteetan, eraikin bikain eta eder hau musikak aldamenean duen alaitasunez bete duzue. Gure herriaren erreferente bihurtu zarete eta, pixkanaka, hemen egiten duzuen lan bikainaren oihartzuna gure mugetatik urrutira ere iristen da. Atzerritik datozen irakasle eta ikasleak ditugu, hainbat nazionalitaztekoak; eta hemen egindako lanak ere geroz eta indar gehiago hartzen du nazioartean.

Comparto mi pasión por la música.

La música forma parte de nuestras vidas, nos acompaña en nuestros recuerdos y en nuestras ilusiones. La música es un elemento esencial de nuestra educación, cultura, historia y convivencia.

Desde su creación Musikene se ha convertido en una referencia en la formación superior, la investigación musical, la transferencia a la sociedad de su conocimiento, la divulgación y la proyección local e internacional de la música “made in Euskadi - Basque Country”.

La música es también una invitación al encuentro. Gracias a vuestro trabajo Musikene se ha fortalecido como punto de encuentro y colaboración con otras instituciones y organismos, tanto de Euskadi como internacionales. Agradecemos por lo tanto también, esta cultura que suma el arraigo local con la apertura universal.

Musikene es una apuesta firme de un Pueblo que aprecia y ama la música.

Amaitzeko, 20 urte hauetan, Musikeneren irakasle guztiei eta hemen ikasi duten 1.500 pertsoneri gure esker ona adierazi nahi dizuet, nahi diet. Zuen bitartez Musika, Kultura eta Alaitasuna sustraitzen eta zabaltzen da. Zuen bitartez gizarte hobego bat eraikitzen jarraituko dugu.

Zorionak beraz Musikene eta urte askorako!

Eskerrik asko!